

EMILIO

SALGARI



Barku
madarikatua

Seve Callejaren bertsioa

ALBERDANIA





Emilio Salgari (Verona, 1862 – Turin, 1911). 80 bat eleberriren eta 150etik gora kontakizunen egile.

Tartean pertsonaia apartak sortu zituen: Sandokan eta Kortsario Beltza, adibidez. Salgarik egundoko garrantzia hartzen du fenomeno kultural gisa.

Belaunaldiz belaunaldi, mundu osoan, irakurle amorratu askok aitortzen du Salgari dagoela bere irakurtzeko zaletasunaren oinarrian. Izan ere, idazle italiarrak giro propioak sortzen jakin zuen, eta paisaia literario horietan maisutasunez txertatu zituen bere pertsonaia ospetsuak berezko dituzten ezaugarri guztiekin: irmoak dira, eskuzabalak, beren printzipioei leialak... Piratak, ehiztariak, balea-arrantzaleak edo cowboyak beti dira, nor bere egitekoan, ausartak, basatiak, leialak edo gogorak, baina prestutasunez eta bihotz-zabaltasunez portatzen dira hurbilenekoekin eta ahuleneekin; hau da, beren jendearekin.

Galipot zaharrarentzat barkua dena da: bizitokia, lanbidea, bizibidea..., bere bizitza itsasontziari erabat lotuta baitago. Zazpi itsasoetan nabigatu du itsasgizon zaharrak, eta marinel zailduei barrendu ohi zaizkien sineskeriak ditu: itsasoan nora ezean dabiltzan barku fantasmetan sinisten du, adibidez; eta ezinegona eragiten diote naufrago fantasmagorikoek, latitude arriskutsuek edo itsas munstroek eta beldurrak sortutako bestelako izaki izugarriek...

Bere oroitzapenetan arakatuz, aitona Galipoteke kontakizun berri bat ehuntzen du gauero, eta haietan agertu ohi diren munstroek, fantasmek edota itsaspeko piztiek erabat izutzen dute tripulazioa. Marinel zaharraren suhartasunari, ordea, kapitainaren eszeptizismoa kontrajartzen zaio; hura beti saiatuko baita elezahar bakoitzari azalpen logiko eta arrazoizko bat topatzen.